

SEMINARIO C.4

EUROPA EN EL S. XXI: SER O NO SER (S)

Zuzendaria: **Juan José Álvarez Rubio.**

EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna. EUROBASKeke idazkari nagusia

Helburuak:

Europar Batasuna bere historia laburreko une erabakigarri batean da oraintxe. Aldatzen ari den eta ezin iragarritzeko den mundu batean, nazioarteko eragileak gero eta dibertsifikatuagoak direlarik, Europar Batasunak munduko boteretsuenen artean izan nahi du. Baina bateratuta aritzeko borondaterik ezaren eraginez, Europar Batasunari barnean nahiz kanpoan anbiguotasuna nabari diote. Mintegiaren izenburuak geure buruari galdetzera bultzatzen gaitu, ea Europa nazioarteko harremanetako *Hamlet* bat bihurtu den. Salvador Madariagak hau zioen Hamleti buruz: «*Hamlet ez zen izateko gai, hori da printzearen benetako tragedia*».

***Zein da XXI. menderako europar proiektua?
Zein dira euroarentzako ikuspegiak, geoekonomia berrian?
Ba al da europar estrategiarik, Europako ekonomia bultzaberritzeko?
Nola orekatu ekonomia arloa eta gizarte arloa?
Europar Batasuna nazioarteko harremanetako Hamlet berria al da?***

Horra hor ikastaroan landuko diren galdera eta gogoetatariko batzuk. Lehenengo jardunaldian aztertuko dira Lisboako Ituneko edukiak, eta zer erakunde tresna dakartzan arrakastaz aurre egitearren teknologia, gizarte, ekonomia, migrazio, ingurumen eta politika arloetako demak, mende berri honetan.

Bigarren jardunaldian ezagutaraziko dira euroaren posizioa eta demak, etorkizuneko ekonomia gobernantzan, eta munduko botere banaketa berrian (XX. mendeko erakunde zaharrak XXI. mendeko egoera geoekonomiko berrira egokitu beharrak eragingo du hori). Orobat aztergai izango dira krisialditik irteteko europar estrategiak, eta nola bultzatu Europako ekonomia gobernu bat, gai izango dena bai ekonomia politikak koordinatzeko, eta bai enplegu sorkuntzarekin, gizarte justiarekin eta ingurumen babesarekin hazkundera orekatzeko. Saio horretan, nabarmenduko da Europak pobrezia-aren aurka borrokatzeko hartutako ardura, Pobrezia-aren eta Gizarte Bazterkeria-aren Aurkako Borrokarako Europar Urtea dugun honetan. Halaber, lan merkatuko Europako ereduak eta Europar Batasunean lan erreforma egiteko proposamen batzuk ezagutuko ditugu.

Hirugarren jardunaldian, eztabaidagai izango dugu ea Europar Batasunak badituen aski mekanismo, munduko eragile gisa bere posizioa indartzeko. Era berean, ikergai izango dugu Europak aurrean duen aukeratu beharra: globalizazioaren ondorio kaltegarrietatik bere burua babestearren bere baitara biltzea; ala munduko boteretsuenen artean bere lekua hartzea, zeregin eta helburu berriekin.